

Sei bertsolari finalera eldu naian Elorrion

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa azken txanpan da. Domekan, Euskalduna Jauregiko itzorduaren atarian, azken finalerdia jokatu da Elorrioko Arriola Antzokian, 17:30ean, Durangaldeko ordezkari Igor Elortza durangarrak eta Gorka Lazkano berriztarrak osatuko dute.

Joan zen domekan, Etxahun Lekue larrabetzuarrak ziurtatu zuen finalerako pasea, Getxoko saioan irabazita, baina Unai Iturriagak ere, 507 puntu lortu ostean, finala seguru dauka. Arkaitz Ugartetxea, Eneko Abasolo eta Garikotz Sarriugarte ez ziren durangarren mailan aritu eta finaletik kanpora geratu dira.

Irakurlea: Cristina Otxandategi Zedrun - Bertsolaria eta Andereñoa - Oromiño (Iurreta)